

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### BARRUNDIAKO UDALA

**Apirilaren 29ko 176/2020, ebazpenaren laburpena, "udalerriko nekazaritza eta abeltzaintzako ustiategiak sustatzeko eta garatzeko" dirulaguntzen deialdia**

BDNS(Identif.): 504453

Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 17.3b eta 20.8a artikuluetan xedatutakoarekin bat etorriz, testu osoa Diru-Laguntzen Datu Base Nazionalean (<http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans/index>) kontsulta daitekeen deialdiaren laburpena argitaratzen da.

#### **Lehenengoa. Onuradunak**

Diru-laguntzen onuradunak izango dira pertsona fisikoak eta juridikoak; pertsona fisikoak badira, jabeetako batek gutxienez udalerrri honetan erroldatuta egon behar du eta bertan eduki behar du ohiko bizilekua, eskabidea aurkeztu baino bi urte lehenagotik gutxienez.

#### **Bigarrena. Diru-laguntza ematearen xedea**

Nekazaritzako eta abeltzaintzako ustiategietan hobekuntzak edo eraikin berria egiteko obrak finantza daitezke, udalerrian bertan eginez gero, bai eta ohiko etxebizitzaren eraikuntza ere, nekazaritzako eta abeltzaintzarako ustiategietan titularrena baldin bada.

#### **Hirugarrena. Oinarri araupetzaileak**

Udalbatzak, 2013ko urtarrilaren 29an egindako batzarrean, udalerriko nekazaritzako eta abeltzaintzako ustiategiak sustatzeko eta garatzeko dirulaguntzak arautzen dituen ordenantza onartu zuen.

Diru laguntza oinarriak, deialdia eta eskabide ereduak Barrundiako Udaleko web orrialdetik jaitsi ahal izango dira: [www.barrundia.eus](http://www.barrundia.eus).

#### **Laugarrena. Zenbatekoa**

Kopuru osoa: 3.000,00 euro.

Aurrekontu partida: 412.770.000.

#### **Bosgarrena. Eskariak aurkezteko epea**

Dokumentazioa aurkezteko epea 2020ko abenduaren 30era arte izango da.

Ozaeta, 2020ko apirilaren 29a

*Alkate-lehendakaria*  
**IGOR MEDINA ISASA**